

Igitaia eta mailua

Joxean Agirre

Mario Onaindiak esaten zuen bakoitzean euskaldun guztiok daramagula barruan karlista bat, tradizioa defenditzeko ganbaratik trabukoa hartzeko prest, pentsatzen genuen liberal bat ere bagenera-mala geure barruan gizarte berri baten alde hau ere tiroka hasteko pronto.

Bi figura horien oihartzun urrun bat suma daiteke mende bat geroago ezker-rak bere egin zuen ikonografian mailuak eta igitaiak marrazten hasi ginenean. Badakit mailuak langileriaren borroka epikoa adierazten duela eta igitaia baserritarren borrokaren ikur dela, baina interpretazioa libreago egiten hasita, iruditzen zait igitaiak gehiago ere adierazten duela, lurralde batekiko atxikimendua eta nazio eta hizkuntza batekiko lotura.

Beti harrigarria iruditu izan zait zeinen azkar igaro izan garen igitaitik mailura. Gaztetxoak ginela deskubritu genuen Herri Gaztedin marxismoa eta kolpetik euskaltzaletasunetik obrerismora igaro ginen, baita langilerik buzoarekin ikusten ez zen herri txikietan ere. Bidenabar esateko, non ote dago gordeta garai horretan etxean sarjenta pare batekin lotu eta kola emanez ‘fabrikatu’ genuen “Gazte”aldizkariaren zenbaki hura?

Gero etorri ziren “quinta”k eta “sexta”. Batzuek mailua altxatzen zuten gorago eta besteek igitaiak beharbada. Gurean zaila izan da beti bi ikurrak elkarren gainean jostea.

Dikotomia horren azken aldaera izan daiteke Ernai-GKSren artekoa. Adinagatik edo, bi indar horien arteko

sestrak urruti samarretik jarraitu ditugulako edo, grina bereziarekin (morboa ere izan daiteke) jo nuen “Bertsolari” aldizkariak udazkeneko zenbakian atera zuen Ane Zuazubiskarren “Milenial berantiarrak” izeneko erreportajera.

Zuazubiskarrek dioenez, bertsolari gazteak hiru esparru nagusitan mugitzen dira: Ernai (ezker abertzalea), Mugimendu Sozialista (GKS) eta mugimendu feminista. Eta esparru horietako bakoitzetik gaurko bertsolaritza aztertzeke balio duten lekukotasunak biltzen ditu. Anitza eta konplexua da puzzlea. Bakoitzak bere talaiatik aztertzen du egungo bertsolaritza. Lekukotasun batzuk gogorrek eta diskutigarriak izango dira, baina argiak eta zorrotzak. •

Bizikletan

Asier Aiestaran

Uztaileko arratsalde beroetan Tourra ikusten egoten ginenean, bazen gure etxean hausnarketa bat etengabe errepikatzen zena. Telebistan lorategi ederrez inguratutako gaztelu dotore horietako bat azaltzen zen bakoitzean norbaitek halaxe botatzen zuen: «Frantses hauek bai jakin gauzak zaintzen».

Eta Tourrean bertan antzeko beste monumenturen bat ikusitakoan, esateriaren azalpen sakon eta guzti, edo bi-daiaren batean bisitaldi turistikoren bat tokatuz gero, hausnarketak bazuen beste moldaera bat, mamiak zelofanari ohore egiten ez zion kasuetarako: «Frantses hauek bai jakin gauzak saltzen».

Esaldia gerora beste zenbait arlotara zabaldua entzutea ere tokatu zait, dela jakiak saltzeko kalean jarritako merkaturuei buruz, dela sukaldari eta jatetxeen harira edo garbitu gabeko mendi bideren batetik igaro beharra suertatu denean. Muina berbera kasu guztietan: zer garrantzitsua den ondarea ezagutzea, zaintzea eta merezi duen bezala zabaltea eta ezagutaraztea.

Oroitzapen horiei bueltaka nabil behin eta berriz azkenaldian. Aurtengo udan, esaterako, Lapurdiko kostaldera bisitatxo bat egin nuen, eta pozgarria iruditu zitzaidan horrenbeste jende bizikletekin kostaldeko bidea egiten ikustea. Bikoteak, familiak, gazteak, adinean

aurrera samar joandakoak... Pentsatzen dut asko Velodyssee deitzen dioten ibilbidea egiten ariko zirela modu batera edo bestera, eta apur bat arakatzen hasita ikusi dut, adibidez, zenbait kanpinetan deskontuak egiten dizkietela bide horretan dabiltzan ziklistei.

Bien bitartean, Donostian edo Zarautzen, bizikletaren hiri barruko erabilerrir dagokionez Europa mailan eredu izan litezkeen arren, txirrindulariek oztopoak baino ez dituzte jasaten. Mota guztietako obrak, bide mozketak, loturarik gabeko utzitako hala moduzko bidegorriak... Eta gero mugikortasunari buruzko hitzaldiak antolatu. Tourreko esaldi hark bidea egin behar du oraindik. •